

Angelmari - Gotzon Garate

Anaia Angelmari 1934an, irailaren lehenengoan, jaio zen, Elgoibarren. Bi urte eskas zituelarik, 1936ko “gerra zibilak”, bete betean harrapatu zuen. Txikiegia bera, gertatzen zen hartaz jabetzeko. Baina, konturatu ala ez, sakoneraino markatuko zuen bere pertsona, betiko. Egia baita, nabarmena, J. Ortega y Gasset-ek zionea: “Yo soy yo y mi circunstancia”.

Gerra zibilaz erabateko aldaketa gertatu zen Angelmariren bizitzan. Besterik ez aipatzeko, hizkuntza kontuan, euskara-gaztelera kontuan, aldaketa baino areago iraultza gertatu zitzaion; bere ikurtzat izango zuen eginkizunean, euskararen aldeko lan-eginkizunean alegia, erabateko iraultza gertatu zen eta gertatu zitzaion.

Bi urte eskaseko umea zelarik sartu ziren, Elgoibarren, “nazionalak”. Nazionalak, hots, Francoren gudariak: falangista gutxi batzuk, marokoarren legio bat eta, gehienak, “reketeak”. Sartu eta zazpi hilabetez egon ziren nazionalak Elgoibarren. Eibarren, Plaentxian (Soraluzen) oso kilometro gutxira genituen “rojo-separatistak” aurrean.

Zazpi hilabetez, “frentea”. Eta frentearen ardatza, biolentzia. Heriotz biolentzia trintxeretan; Kalamuan eta Arraten, ia bata bestearen gainean, fusil, mosketoi, mortero eta esku bonbaz batak bestea garbitzen, hiltzen. Eta herrian, behean, behin huts egin gabe, egunoro, bonbardaketak. Abioien eta kanoien bonben txikizioa eta heriotza. Zazpi hilabetez.

Zirkunstantzia horiek markatu zuten, jakinean edo jakin gabe, Angelmariren umetako pertsona; eta horren bere berea izango zuen euskara.

Behin baino gehiagotan mintzatu zen edo idatzi zuen Angelmarik euskararen egoerari buruz, bere iritzia emanaz euskararen etorkizunari buruz. Eta horretan, berak idazterakoan bizi zuen euskararen egoera, bere umetakoarekin konparatu zuen. Konparatze horretan, pozik azaltzen zuen urteetan zehar

egindako “irabazia”. Eta ez zitzaion, ez, optimismo horretarako arrazoirik falta. Hainbeste ikastola, irrati, telebista, egunkari... era askotako publikazioak euskaraz.... Bere umetako garaiaz gero egindako aurrerapen nabarmenak. Horrela, esate baterako, idatzi zuen:

Gaurko egunean, Elgoibarren, gure ume denboran baino euskara gehiago egiten da. Urte txarrak harrapatu genituen guk, gerra zibilaren ondokoak. Eskolan dena zen erdaraz eta kalean oso gutxi egiten zen euskaraz. Orain euskara barra-barra entzuten da nonahi (Gara 2002 /10/9 osteguna).

Egia, hori, alderantziz. Ze, bere umetako oroimena erabat zuen murriztua. Murriztuta, derrigorrez, ez zuen eta nazionalak Elgoibarren sartu aurreko oroimenik; ez eta, sartu eta gero, lehen urteen oroimenik. Beste ikuspegi zeharo desberdina genuen bere aurretik, ia hamar urte lehenago jaio ginenok. Gure gaurko euskararen egoera ere makalduta ikusten dugu. Ezin ukatu, zorionez, gerra zibilaz gero egin izan diren aurrerapen nabarmenak. Ez eta, ezin, baina, inola ahaztu, gerra zibilak ekarri zigun galera eta porrota, euskara kontuan, nire anaia ia bi urteko umea zenean eta ondorengo urteetan.

Hona hemen horren adibide bat; nazionalak Elgoibarren sartu zirenean, hirurogei eta bi (62) ume ari ginen “komunio handia” prestatzen. Denok, bi Portugaldar herriko ume bihurri jator ezik, denok ari ginen dotrina handia euskaraz ikasten. Nazionalak sartu orduko herrian, denok gaztelerez ikastera bortxatu gintuzten. Eta denok, bi portuges horiek izan ezik, dotrina handia euskaraz ikasten jarraitu genuen; dotrina txikia gaztelerez –bortxatuta noski–. Handia euskaraz geure borondatez, geurea genuelako. Eta kurtsoa amaitzeko sari azterketa ere –han zegoen tribunalean nire lehengusina ltziar, gero lehen maistra izango zena, euskaraz– euskaraz egin genuen. Hori zen gure herriko giroa, aldi hartan, Angelmarik, bere kontzientzia begiak horretaz jabetzeko zabaldu baino lehenago. Bera JAIO garaiko euskara egoera, gaurkoa baino askoz hobea, euskaldunagoa zen.

Dotrinaz guri gertatutakoa ez zen alditxar baten akzidente bat, zoritxarrez. Herri osoan, udaletxean, eskoletan, dendetan, giza harremanetan, gaztelera bihurtu zen nagusi, jaun eta jabe, euskararen bizkarretik edo galerarako. Ez zen, ez, euskara, inolako ohore ezaugarri, erabat bestera baizik. Ahaztu ezineko dugu, euskara berriro berpizten joan ziren urteetan ere, zenbat aldiz entzuten genuen: *Zertarako balio du euskarak?*, Bai eta euskaraz mintzatzen ari zen bateren bati, beste baten korrekzioa; *Habla cristiano*.

Ezinezko, Angelmarirentzat, bere umetako lehen urteak gogoratzea. Euskararen porrot-galera mingarriaren lehen urteak ezin izan zituen kontziente bizi/pairatu. Ezin, drama-tragedia haren kontzientziarik izan, bere pertsona –eta sakon-sakonean gainera– markatu bazuten ere. Umearen pertsona bere familiak eta gizarteak markatzen/eratzten duten antzera ez bada ere, umea, oraindik gertaeraren jabe kontzienteki izan gabe.

Euskara kontuan, giro oso makalean heldu zen Angelmari bere ikasketak “ofizialetara”. Bere batxilerra Durangon hasi zuen, jesuitok herri hartan



Nire familia osotik gazteena edo txikiena Angelmari izan da beti, 1939.



Nire anaia "Eskola Nazionaletan" edo "Publikoetan", guk "Publiketan" deiturikoetan, 1942.

genuen ikastetxean. Beraz, ikastetxe hura jesulagun izateko asmotan zeunden umeentzat zen. Gogoz eta pozik hasi zituen bere ikasketak; hauek, berarentzat, beti, jolas-atsegin egin zitzaizkion. Gai guztiak zituen begiko. Denetan, hala ere, matematika gaietan nabarmentzen zen bere erraztasun aparta; harriturik esaten zidan, bere maisu batek, zelan, bera arbelean problema bat azaltzen hasi orduko, Angelmarik, aitaren baten, osorik ateratzen zuen. Pozik, Angelmari, ikasketa maisuekin eta pozik bere ikaskideekin; pozik eskolan, oso urte eskasak baziren ere jate kontuan. Orduko “racionamiento” gose kontuak! –Hizkuntza arloan, gaztelera erabat nagusi eta jaun eta jabe bakarra, ikastetxeko harreman “ofizial” guztietan.

“Interno” gisa bizi izan ziren hartan Durangoko ikastetxean.

Giro hotz hartan izan omen zuen, hala ere, Angelmarik, berak aitortzen zue-nez, bere euskara hizkuntzarako jaiotza berria. Nolabaiteko eztanda, euskara maitasun kontzientzian. Bere ikaskide azpeitiar bati esker. Javier Bastida izan zen Angelmariren euskara maitasun sutsua, betiko piztu zuena. Hori osatu beharra dut, dena dela, beste gertaera batekin; izan zuen, Angelmarik, horren aurretik, beste suspertzaile bat; bere arreba gazteena Marikarmen.

Horrela gertatu zen hori. Oporretan, udaran, Angelmari ikastetxetik etxera etortzean izan zen. Eta etxeko lanean, ‘sastreria’n, –aita sastre bai genuen– laguntzen zuen. Oso izan zen, beti, trebea, esku lanetan ere. Tarteka, jakina, bere ikasketa maiteei eusten zien; eta hartan, frantsesari ekin zion, hain bere zuen arduraz. Aurrerapen nabarmenak egiten zelarik frantsesarekin, Marikarmenek ohartarazi zion: *Angelmari, geure dugun euskara indartu eta jorratu beharko zenuke*, Ez dezagun ahaztu, senideon artean, berari tokatu zitzaiola euskararen praktikarik makalena; umeegi, gerra aurretik, mintzatzeko; eta mintzatzeko garaia heldu zitzaionean, gerra osteko giro etsaigoa, edonon, herrian, “Borono”-en hizkuntza, “kultura gabeko” baserriarren hizkuntza, harreman sozial publiko guztietatik baztertutako eta mesprezatutako hizkuntza.

Horren zen ezaugarri, esate baterako, herrian, neskek, euren artean gaztelera hutsez –arrotea bazen ere euren gaztelera– mintzaten zirela. Eta ez dezala inork pentsa, hori nesken edo emakumeen errua zenik. Sinplekeria galanta litzateke horrela pentsatzea. Errealitatean, baina, giroaren ezaugarri nabarmena zen. Giro hartan, bada, askoren euskara makala zen. Makalena, senideon artean, Angelmarirena, eta makalena, batez ere, anaion artean. Bere Durangoko ikastetxean ere, orduko hizkuntza egoera oso zen makala euskararentzat. Piztu zitzaion, baina, hala edo hola, bere ama hizkuntzaren su eta garra. Gero eta biziago izango zuena, heriotza arte.

Durangotik Javier-era joan zen, bere batxiler ikasketei amaiera ematera. Bere ikaskide lagunak, han, euskara ez zekitenak, gehienak. Esker onez beteta gogoratzen zituen Angelmarik, han, Javierren, izan zituen lagun euskaldunak; gutxi baina benetan txalogarriak, berak, niri, behin eta berriz aitortzen zidan bezala, eskerrik onenaz gainezka. Horietako bat, Carlos Goena josulaguna. Heroitzat aipatzen zuen C. Goena, hango giro hotzean, eramapen eta ausartia harrigarriaz egin zuen lanagatik.



Jesusen Lagundian sartu bano lehentxeago, 1951.



Nobizio, 1953.

Batxiler azterketa egin Valladolid-en eta laster, 1953an, jesuiten nobiziatuan sartu zen, Loiolan. Aurreko Durango-Javier-eko giroa baino eskasagoa, euskara kontuan. Harrigarria eta tamala egiten zaigu, orain, garai hartako Espainia Estatuaren eta Elizaren arteko harremana. Edo, hobeto esateko, Francoren eta Elizaren arteko harremana. Francoren matxinada-asaldaketa “gurutzada” bihurtzeraino heldu ginen. Gurutzada. Eta, jakina, gurutzada bazen, baita ere Elizaren gurutzada santua. Neu ere ez nintzen neure harriduratik irteten; Francoren nazionalak, nire herrian, frentean, zazpi hilabetez egon ziren bitartean, ez genuen inoiz, oraindik, “gurutzada” izena entzun, ez eta “erreketeen” artean ere. Egia esateko, hartan, ez Francoren ize-nik ere; Mola eta Mola eta beste ‘Fal Conde’ eta horrelakoen izenak abesten/errepikatzen zituzten erreketeek. Nobiziatuan, ostera, bederatzi urte nire anaia Angelmari sartu bano lehenago, Francoren matxinada gerra santu bihurtzen zuen hitza zen nagusi. Gurutzadaren garaipen ohore ondorio betean sartu zen, bada, nire anaia Loiolan.

Egia da, bederatzi urtetan, poliki poliki, begi-bistan nabarmena ez bazen ere, hasi zela, sakonean/ezkutuan giroa aldatzen. Oraindik, baina, nobiziatuan, nire sasoi-ko giroa, bederatzi urte lehenagokoa zen nagusi; euskara, orobat, baztertuarena; euskara okertzat, nolabait gaiztotzat edo susmagarritzat, gutxienez, jotzen zuenarena. Ezin ahaztu, esate baterako, diogunaren adierazgarri bat. Nire anaia Genaro eta biok batera, urte batez gertatu ginen elkarrekin Loiolan. Nobizio asko euskaldunak ginen.

Hala ere, gure arteko hizkuntza bakarra espainola zen. Hainbestearino zen horrela, ze nire anaiak, geu biok, ohi genuenez beti, euskaraz berba egiteko, baimena eskatu behar izan zuen Aita ‘Laguntzaileari’, A. Inchaurrendietari eskatu zion. Euskaldun jatorra zen A. Inchaurrendieta, zorionez, eta eman zion, nire anaiari, biok geu bion artean euskaraz mintza gintezen. Esan dut, giroa, bada, gehiegī nabarmentzen ez bazen ere, aldatzen zihoan. Giro makalean eman zuen, horrezkero, Angelmarik nobiziatua.

Nobiziatu ostean, “junioratua”, Loiolan, hasi zuen. Kultura klasikoan, greziar-latinezkoan, bereziki, murgiltzeko sasoa. Baita Espainiako kultura literaturan eta klasiko orokorrean ere. Zoriontsu, Angelmari, edonolako ikasketetan, ohi zuenez. Han, ordea, junioratuan hasi zen, bere kasa, ez bai zegoen euskara eskolarik, euskara ere jorratzen. Eta “junior” zelarik, hogeita bat urterekin idatzi zituen artikulu batzuk, hartan Elizaren babespean argitaratzen ziren “Jesusen Bihotzaren Deia”-n, X eta X aldizkarietan. Orduan “Gomiga” izenez firmatzen zituen bere artikuluak. Guk, bere anaia-arrebok, beti deitu diogunarekin jarraitu dugu: Angelmari.

Junioratua bi urtez amaituz gero, Filosofia ikasketak. Hiru urtez, Loiolan, euskarari aurrera egiteko aukeran. Kukuerrira, astean behin, umeei dotrina ematera; eta beste jesulagun ikaskide batzuekin euskaraz egiteko aukera. Hasiak ginen, gu, bederatzi urte beti aurretik, Espainiako diktadura kolokan ipintzen, hitz batzuen bitartez, gutxi batzuen artean. Gertaera arriskutsua iruditu zitzaion hori, gure hartako A. Probintzialari. Eta horrela adierazi zigun, filosofoak denok bere aurrean elkartuz. Bilera solemnea eta, batez ere bitxia egin zitzaigun, monasterio zaharreko peristilo ederrean, Oñan. *Carísimos, carísimos...*; –adierazi zigun– *he oído que entre ustedes han comenzado a hablar de política. Y eso no está bien entre nosotros!* Orduan, han geunden ikaskide batek galdetu zion: *Padre, decir, por ejemplo, que este Gobierno es bueno, es hacer política?* –No, hijos míos, no, berak. Eta jarraian, ikaskideak: *Y decir: ‘éste Gobierno NO es bueno, es hacer política?’* Han, gure A. Probintzialaren estuasun eta asmakizun dantzak, aitortu nahi ez zuena ezkutatzeko. Bederatzi urtetan, nahiko zen, zorionez, nire anaiaren Filosofia giroa aldatuta. Ez, ordea, euskararen aurkako giroa ezkutatzeko adina. Eta han, euskara indartzeko/jorratzeko taldetxo bat osatu zen, nire anaia eta beste lagun batzuen artean. Euskara, nolabait, berreskuratzea zen euren asmoa. Eragozpen handien artean, baina berrikuntza pausu batzuk, behintzat, eman egin zituzten. Ondo baino hobeto amaitu zituen Angelmarik filosofia ikasketak. Nabarmendu ere egin zen, Profesoreek eskaini zioten ohorezko ekintza publikoa egitea.

Loiolatik Zaragozara joan zen. Barre egitekoa izan zen bere Zaragozarako destinoa. Filosofia amaituz gero “magisteritza” egiten dugu jesulagunok. “Magisteritza” bi edo hiru urtez, gure ikastetxeren baten hango ikasleen maisu izatean datza. Nire anaiari orduko A. Probintzialak, –nobiziatuan bere A. Maisu izan zenak– galdetu egin zion non nahiko lukeen egin bere magisteritza. Nire anaia pozik, galdera hori egin ziolako; eta zalantzarik gabe, erantzun zion: ‘Donostian’ Zertarako?, A. Probintzialak. Eta xalo, nire anaiak: *Euskara jorratzeko tokirik onena deritzot.* Eta Donostiara orde... gure Euskal Herriko Jesulagun Probintzialak urrutien zegoen herrira destinatu zuen: Zaragozara.

Barre bat baino gehiago egin izan genuen, biok, berak hori gogoratzen zidanean.

Ezin oroimen hoberik izan nire anaiak, Zaragozan eman zituen urteei buruz. Beti, behin eta berriz errepikatzen zidan gure ikastetxeko giro zoragarria. Ikastetxe on ona eta areago hango jendea, bai ikastetxean eta baita herritarrek, kanpoan; zuzenak, nobleak, drogarik gabekoak, leialak. Beti, lelo berdina. Eta behin, nik esan nionean: *Zu, zer edo zer izango da, bada, horren ez den maitagarria*. Eta berak:

Beno! Milonari batek ekarriko balu tximino bat ikastetxean sartzeko, urrez-diamantez-bitxiz apainduta..., errektoreak bere izena galdetuko lioke; tximinoak... zarata sakonak ezta...! Komentatuko lioke errektoreak milonarioari: 'Ikusten da, bai, sakona dela zure gomendatuaren kultura!' Eta onartu egingo luke...

Gogoan izan behar da, garai hartan gure Salvador-eko ikastetxean sartzea zaila zela; Angelmarik berarekin zeraman, jakina, bere giro pertsonala: ontasuna, errespetua, gozotasun gizatasuna; poz giroa zen, beti, berea, eta ikasleekin batez ere. Giro jator pozgarri maitagarrian bizi izan zen, horrez gero, Zaragozan.

Bere barruko giro pertsonalaz –kanpokoaz indartuz ahal zuen neurrian– bizi zen. Kanpoko gauzen artean, bi zituen bere bereak: bata, kirola; oso zen kirol zale: esku pilota, paleta, eskia. Eta ia bere azken urteak arte jokatu, tenisa. Tenis erraketa egokiak izaten zituen, beti, jolasteko; New York-en, batez ere, sarritan jolasten zen tenisean. Eta bigarren kanpoko gauza, gitarra. Musikari petoa zen; txikitatik, etxeko giroan, amasa lez bizi izan zuena; asko jorratu zuen berak musika, bai klasikoa eta baita ere sasoikoa; belarri oso fina zuen eta gustu handia kantatzeko ere, eta gitarra, egunoro, hala edo hola, jotzen zuen edo goxatzen zuen; baita bere ibilaldietan, mundu zabalean, edonon eskaini izan zituen gitarra saioak bere lagunei.

Zaragozako oroimen baikorrak bazuen, beragan, meritu berezia. Ze hango magisteritzan 'internoen' maisu eta zaindari izatea gertatu zitzaion. Eginkizun benetan delikatua eta nekagarria. Egun osoa ikasleekin; eta gauez ere, adi egon behar; ez zen, hala ere, inoiz nekatuta azaldu; langile porrokatua, beti, gaixotasunak menderatu zuen arte.

Aipatzekoa deritzot Zaragozako beste gertaera bati. Esana dugu A. Probintzialak, nire anaiak gogoko zuen Donostiara ordez, handik urrutienara, Zaragozara destinatu zuen... euskara zela eta. Eta hantxe, Zaragozan, aurkitu zuen lagun berezi bat; txikitik, Espainiatik Errusiara eraman zuten bat. Elkarren lagun egin ziren; nire anaiak euskara irakasten zion; eta nire anaiari, lagunak, errusoa. Nahiko baino gehiago ikasi zuen Angelmarik, berari zegokion bezala. Probetxu handikoa, gerorako. Ze, bere ibilbideen artean, Errusiarakoa izan zen bat. Moskura, hain zuzen; bi udara eman zituen han, guraso eta alaba bateko familian; aita-amak, biak komunistak eta unibertsitateko profesore biak; zenbat oroimen pozgarri zituen Angelmarik bere hango egonaldiarenak.

Etxeko egin zen familia jator harekin; ez zituen, ez, inoiz, ahaztu. Eta ondo baino hobeto etorriko zitzaion errusoa geroago.

Zaragozatik Innsbruck-era joan zen, han Teologia ikasketak, lau urtez, egitera. Herri zoragarri ederra, ibaia indartzen zuten mendi gailurreko elurrekin. Neguan murriztu eta udaberrian harrotzen den ibaiak, hain zuzen, ematen dio izena herriari: Ins(s)-bruck. ¡'In' ibaiaren zubia. Tiroleko mendi-ibar zoragarri haletan, bere berea zenaz goxatu zuen: paisaiaz, ekologiak hain zuzen. Ekologia bere arnasa lez sentitu-bizi zuen. Ondo zekien 'eco' hori "etxe" dela, grekoz; eta egiaz, gure bistako mundu zoragarri hau, geure "etxea-eco-oikos" hau, bere bere sentitzen zuen. Bazekien ez dela inor, ez dela gizakirik "oikos" "etxe" barik bizi. Etxe-oikos hau denona dela eta ahalik eta ederkien zaindu behar dugula. Ez diogula inolako zatarkeriarik, orbanik geure KOSMOSARI egin behar. "Kosmos" = ederra, grekoz; eta denok eta bakoitza "kosmetika" unibertsal horretaz jantzita, apainduta, ezkonduta, elikatuta, mamituta-osatuta gabela. Zenbat aldiz entzun nion, minduta, geuk sortzen dugun kutsadura zatar- beldurgarriagatik. Nahigabe handiko iturria zitzaizkion "eko-logiaren" aurkako gertaerak. Eta bestera, zorion pozgarriaren etengabeko zitzaizkion gure "eko" "etxearen" zenbatezinezko edertasunak. Zenbat aldiz, esate baterako, adierazi ote zidan berari 'euriak' ematen zion poz-atsegina. Biok gentozen zeharo bat, gozamen horretan. Gure abestiak eta kantuak ere 'euri' goraipamen bihurtzeraino. "Geuria da ta geuria da, geuria da ta Euskal Herria" kantua, honela kantatzen zuen.: "EURIA da ta, EURIA da, euria da Euskal Herria".



Angelmari eta Roman anaiak Venezuelan "urrezko luma" jaso izana ospatzen. Anai guztiak Joseluis izan ezik. 1989.

Eko-etxe horretako izaki miragarritzat eta maitagarritzat zituen, bereziki, animaliak. Gure aitaren ondorio-herentzia, noski. Txikitatik jolastu zen etxeko txakurrekin eta katuarekin edo katuekin, esate baterako; aitaren kuttunak, noski. Anaiok, animalia zale izan gera eta gera denok. Arrebak, ostera, lore zale maitale sutuak. Esan beharra dago, hala ere, baita gure amak ere, horren bere loreen zale izanik, ez zuela, inola, animaliak baztertzen; areago, berak, pertsonalki, hazten zituen kanario eta gardantxiloak; herriko etxe askotan kantatzen zuten, zoragari, amak bere lagunei oparitzen zizkien “bere” txoriak. Anaiak, Deustuko Unibertsitatean eman zituen berrogei urtetan, pertsonalki zaindu eta elikatu zituen animaliak. Unibertsitateak beti izan ditu bi txakur, zaindari izateko, gauez. Horietaz ere arduratzen zen Angelmari. Eta baita ere zenbatu ezin txori-egazti, katu eta abar, zaintzen-elikatzen zituen. Unibertsitateko atzealdean, tontor batean jaso zuen berak landutako “oasi” antzeko bat; hantxe jaso zuen zurez egindako aldare antzeko bat, altu bat; lurretik airean, goian jasotakoa, beraz; hantxe ipintzen zizkien jateko ugari, txoriei; ezin, hegan egin ezin zutenek, janari hura jan. Ikustekoa izaten zen zenbat eta zelako egazti-txori aldrak elkartzen ziren euren jatetxean. Ez zituen ahazten, baina lureko animaliak, katuak batez ere; mordoia elikatzen zen bertan; eta ez ziren falta izaten otorduetan... bestelako animaliak... arratoiak eta baita azeriak ere.

Etxe handiko, “oikos-eko” animaliak bihotzean zeramazkien; bere harri-dura berezia, txikitatik... tigreentzat. Eta animalia guztien artean, berak gehien maitatu izan zuena, txakurra. Bere maitasun hori adierazi zuen, nolabait, bere liburuetan ere: *India harrigarria* eta, batez ere *Zakurra, zeure lagun*. Ekologiaren aurkako gertaera negargarria zeritzon animalien aurkako ankerkeriari; ezin izan zuen, inoiz, txakurren arteko edo oilarren arteko borrokarik ikusi. Eta bere gogo eta gustuaren aurkakotzat zuen, esate baterako, *Otsoekin dantzan* deritzon pelikula; ezin onartu otsoaren amaiera tragikoa; hainbestearainokoa zuen bere animaliarekiko sentimendua; adibide hori, askotan azaldu zidan, bera zine zale porrokatua izan arren.

Bizikiro sentitzen zuen, bai, gaurko ekologiaren arazoa. Innsbruck-en, teologia ikasketak zoriontsu amaituz gero, Cordoban eman zuen urte bat. Guk, jesulagunok, ‘Hirugarren Probazioa’ deitzen dugun urtea. Gure Lehen Probazioa Nobiziatua izaten da, bi urtez. – Bigarren Probazioa, ikasketa ofizialen sasoa, hamaika urtez egin zuen. Eta hirugarrena, Cordoban. Nobiziatuko probazioa berriro, nolabait, ikasketak amaituta –ofizialak behintzat–, apaiz-tuta eta urte askoko esperientziaz hornituta. Horri deitzen genion “Hirugarren Probazioa”. Baita ‘afektuen eskola’ urtea, Jesukristorekin maitekiro, arima bihotz osoz adiskidetasun sakonean murgiltzeko eta goxatzeko urtea, funtsean.

Eta heldu zitzaion, hiru Probazio horien ostean, bere kasa, besteentzat lan egiteko denbora. Lehen urtea, hala ere, Suizako Fribourg-on eman zuen, Soziologia marxistako ikasketetan murgilduta. Horretarako, bere erruso hizkuntzaren ezaguera funtsezko baldintza gertatu zitzaion, bere Unibertsitateko Fakultatean; errusoz ikasten bai zuten den dena. Zaragozako destino “bitxi oker?” haren ondorio probidentziala.

Hona, Bilbora etorri zergo, hemen, Deustuko Unibertsitatean eman zituen bere urteak, denak, hil arte.


Ez noa, orain, bere lan erraldoia aztertzeraz. Aipatu besterik ez bada ere, gero idatziko dut bere liburuetan argitaraturiko lana. Ezin ahaztu zerrenda horretarako, tituluez gainera, Angelmarik egindako bestelako lanak, erabat bere zituenak: Egunkarrietan eta aldizkarrietan idatzitako lan ugariak; irratiz ematen-egiten zituen era askotako hitzaldiak; baita telebistako bilerak eta elkarrizketak. Eta azpimarratzekoa den bere urteroko lana New York-en, “hispanos” deritzan kristauen artean. Bere arima eta bihotza oxigenatzeko eta indartzeko, nolabaiteko atsedeen-atsegin opor edo ‘barkazio’ denbora zuen. Ez lanik ez egitera joateko, bere apaiz jesulagun eginkizuna eginez, buru belarri ‘hispanoei’ laguntzeko baizik.

Berrogei urtez pare bat hilabete, urtero, bere apaiz zerbitzu maitagarrian. Zelan maite zituen Angelmarik bere anaia-senide elizkide hispano hariak, eta ‘beltzak’ batez ere, ezin nik, hitzekin, zezeldu ere ez. Eta zelan, kristau senide haiek maite zuten Angelmari, era miragarrian, bere gaixotasun garaian ‘ikusit’ genuen, harrituta. Gutunak, era askotako mezuak, agur hunkigarriak, egunoro, telefonoz eta idatziz, zenbatezinak. Baita bera hil eta gero ere, asko dira, hala edo hola, neu, anaiaगतिक agurtzen nautenak, bere ‘hispano’lagunak. Jakina, bere ‘barkazio’ haiek, bere oporraldi hura ez zela izaten, inola, bere euskara mundua ahazteko edo makaltzeko. Liburu dendak, unibertsitateko bibliotekak, bere atsegin leku zituen. Eta diogunaren adibidea bat da, *New York New York* liburuak han idatzi zuela. Baina, berriro esan behar, bere funtsezko eginkizuna, garrantzitsuenak, New York-en, ‘hispanoei’ laguntzea zela.

Erraz ulertzen dugu hori, Angelmari bere pertsona osoan ezagutu izan dugunok. Angelmarik, beste lelo askoren artean, bat zuen bere funtsezkoena: MAITASUNA. – Bere bizitza osoko asmo, eginkizun guztiak hitz-errealitate horren ondorio bizi zituen. Eta, jakina, bere euskara munduko iturri eraginkorra ere, horretan –maitasunean– kokatzen zuen. Maite eta maite. “Maite ezazu lagun hurkoa zeure burua lez”. Ezin beste inor maite nor-beraren buru maite gabe. Eta bere burua, bere pertsona osoa, euskaraz mamituta eta osatuta zegoen. Euskara, bere nor-tasunaren arnasa eta bihotz-taupada zen. Lagun hurkoarekiko maitasuna, bada, bere nor-tasunaz mamituta zegoen. Bere nor-tasun orokorra zen euskara. Euskaldun izan behar, bada, bere bizitza osoan. Horrela betetzen zuen gure A. General den Adolfo Nicolas-ek aholkatzen diguna: inor ez aldentzeko, inor ez baztertze gure jokabidean. *Fronteras o barreras* elkarrizketa sakonean adierazi zuen. Argi zioen: Mugak (fronterak) nahi eta nahizkoak dira eta ditugu; ez, ordea, “barrerak” langa– hesiak ipintzea. Pertsona bakoitzak ditu bere ‘mugak’, bakana eta errepika ezina denez gero; berdin familiak, baita ere herriak... Nor-beraren muga pertsonala; baina ez da ‘barrera’ beste inor baztertze edo kanporatzeko eragozpena. Gure pertsona, geure nor-tasuna, besteengana zabaltzeko da; hurkoa maitatzeko, berarekin, ahal den neurrian, bat izateko, bateratzeko. Eta ondo baino hobeto gauzatu zuen hori Angelmarik. Bere euskara, bere euskaltasuna, bere nor-tasun funtsezkoa ez zen, inola, inori ixteko, banatzeko hesia izan. Bestera baizik, mundu zabalera zabaltzeko bere burua, bere nor-tasuna.



Angelmari, Jose Luis eta hirurok Unibertsitatea eta Guggenheim atzean ditugula, 2006.



Afrika, India, Errusia, Ipar Amerika..., bere nortasun aberatsaren muga-zubi zabalak, zubi luzeak izan ziren; eta ez, inola, barrera hesia. Xelebre egiteraino zen, bai, bere Maitasun leloa. Zenbat aldiz, gu euskaldunon eta Espainia-Madrileko harremanak zirela eta, pozik, berak, gure, euskaldunon maitasuna ipintzen zuen. Harro, gure eurekiko maitasun jokabidean, gu maitasunean garaile ustean. –Xalo –inozente ote, horretan, Angelmari? Edonola, hori zen betiko leloa: Maitasuna.

Horrela bizi zelarik, horrela maitatzen zuelarik norberaren pertsona eta norberaren herria, Euskal Herria, eman-egin zuen Angelmarik bere lan harrigarria. Bizirik nahi zuen bere herria. Eta bat zetorren Frantziako presidente ohiak, Miterrandek esandakoarekin: *Hizkuntza bat hiltzen denean, Herri bat hiltzen da.*

Ez noa, ni, hemen, bere lanen zerrenda bat baizik egitera:

BILDUMA: Lauaxeta menderik mende, 2005, Mendebalde Kultur Alkartea

HIZTEGIA. Erderakadak 1988, Gero

KRONIKA: 'New York, New York', 1988, Elkar

'India harrigarria', 2002, Elkar

'Zakurra, zeure laguna', 2002, Elkar

'New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk', 2004, Elkar

NARRAZIOA: 'Lehortean', 1979

'Muskilak' 1980, Mensajero

'Nafarroako Ezkurran', 1981, Gero

'Aldarte oneko ipuinak', 1982, Gero

NOBELA. 'Elizondoko eskutitzak', 1977, KIMU

'Esku leuna' 1977, CAPG

'Goizuetako eskongabeak', 1979, Zugaza

'Izurri berria', 1984, Elkar

'Alaba', 1984, Elkar

'Zilarrezko gazteluaren kronika urratua', 1992, Gero

AIPAMENAK: 'Lur hiztegi entziklopedikoa'

'Harlutxet hiztegi entziklopedikoa'.

ERREFERENTZIAK: 'Alaba', Zaldi Ero idazleekin (argazkia), EIEren weba

Auñamendi, Ingelesezkko EIEren webean

KRITIKAK: Esku leuna, I. Zubizarreta, Zeruko Argia, 1979-12-03

Lehortean, M. Hernandez Abaitua, Argia, 1981-06-07

Izurri berria, J. de Kakabeltz, Pamiela, 1983-06

Hades-en erresumarantza, X.E., Argi, 1984-02-19



2006 udan, San Bartolome gure herriko zaindariaren eguneko prozesioan.

Alaba, I. Camino, Argia, 1985-01-13

Muskilak, D. Zuazalde, Argia, 1980-05-22

SAIAKERA: 'Marxen Marxismoa', 1971, Mensajero

'Marx eta nazioa', 1972, Mensajero

'Marxen ondoko errebisionismoa, Rosa Luxemburg', 1974, Mensajero

'Lenin eta nazioen autodeterminazioa, 1980, Mensajero

'Leninen marxismoa', 1983, Mensajero

'Euskal elaberrien kondaira', 1983, Mensajero

'Euskal elaberrien kondaira', 1991, Mensajero

'Euskal elaberrien kondaira', 1991, Mensajero

'Euskal atsotitzak', 1995, Gero

'Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria', 2000, Elkar

Amaitzeko, eta errepikatzen badut ere, zera azpimarratu nahi dut. Baserrira izan zela bere unibertsitatea. Urte askotan, 1962 arte, ez zuen izan, inola, euskara erabiltzeko eta jorrazteko aukerarik. Baina, profesore izanik Deuston, bere kasa lan egin ahal izan zuenean, baserrira jo zuen. Ondo dio, horretaz, Mikel Elustondok: *...eta ez zekien, ezin jakin, zer nolako altxorra jasoko zuen*

baserrietan, Azpeitian, Aramaion, Idiazabalén, Sunbillan, Aiherran, Goizuetan, Arizkunen... Lexikoa, atsotitzak, esapideak eta gainerakoak biltzeko, koadernotxo erabiltzen zuen beti eta leku guztietan. "Oroimenik onena papera da". Baserritarrei galdetu, koadernoan idatzi, unibertsitatara itzuli, garbira aldatu eta sailkatu, horixe lana. Hasieran, idazmakinan. Gero, ordenagailuan.

Altxorrik aberatsena bere lanerako baserrietan eta etxerik maitale maiteenak, bere bizitarako, baserriak.

Nahi dut ere, artikulu hau amaitu baino lehenago, hitz bat gu euskaldunon artean sortzen zaigun eztabaida bati buruz, esan. "Zein behar da izan hizkuntza berriaren hautua: herriaren mintzaira xehea edo klasikoen eredu zaharra?" Ondo idatzi zuen galdera hori Fito Rodríguez Hormaetxeak bere "Andolinen diatribak eta Gotzonen atsotitzak" artikuluan. Neuk, beti, nire anaia Angelmari herriaren mintzaira xehearen alde ikusi nuen. Jakina, arazo honetan, berak ere zehaztasun ugari egiten zituela, bai teorian eta baita ere praktikan. Dena dela, bere joera nagusia herriaren mintzairan zuzturtuta zegoena zen. Horren froga da, ere, pertsona bat gogoratzea: Antton Zabala josulaguna. Ez dut uste Antton baino herri mintzaira zaleagorik aurkituko dugunik. Eta Angelmarik, Antton, euskararen aldeko emaile egile handientzat zuen. Batek daki zenbat aldiz adierazi ote zidan berak Anttoni zion mirespena. Zail, oso zaila, nire anaiaren iritziz, Anttonen pareko euskara ongile bat aurkitzea.

Diogunaren aitormen bat izan zen Angelmarik Anttoni prestatu zion "Doctor honoris causa" ospakizuna, hemen, Deuston. Horri erabat lotuta dagoen 'euskara batuaren' arazoan ere, bere iritzi hori azaltzen zen. Horrela, esate baterako, idatzi zuen "EUSKARA BATUA".

Euskara batuak mesede ikaragarria egin digula uste dut, elkar ulertzeko, argitaratzeko. Gure problema da gutxi garelako: zenbat eta gehiago argitaratu merkeago aterako litzake. Hasiko bagina zuberotarrak zubereraz, bizkaitarrak bizkaieraz, bada, oraindik okerrago. Uste dut euskalkiei eutsi egin behar zaiela, eta batuan idazten denean ere, sartu egin behar direla nor bere euskalkiko hitzak eta moldeak. Eta duda kasuetan, etxeko euskarara jo, gurasoen esateko moduak erabili. Ni, baserrietara, adibidez, ikastera joaten naiz, haiek euskara zoragarria egiten dutelako, eguzkitik eguzkira euskaraz aritzen direlako (*Berria*, 2008-09-01).

Horrela, Angelmari, euskalkien artean bat osoentzat bazuen ere: bizkaiera, alegia.

Eta agur esateko unea heldu zaidanez, artikulu honetan, nire anaiak gehien erabiltzen zuen hitzaz agur esan nahi dut. ESKERRIK ASKO. Sarrien entzun nion hitza eta sarrien, niri, gomendatzen zidan hitza: *Roman, eskerrak eman. Roman, eskertu*. Nekatzerainoko hitza. Bere azken egoera gogorrean ere, bihotzetik ateratzen zitzaion hitza. Ez zitzaion detailerik ihes egiten, eskerak, bihotzez emateko.

Betebeharrezko zait, bada, hemen, Enparan, Odriozolatxo, Errero, ...eta bere zenbatezin baserri 'familiei' -izenez aipatzen ez baditut ere- eskerrak

ematea. Behin eta berriz, bai, eskerrik asko. Bai eta, bide batez, eskerrak askori, zenei nire anaia zordun sentitzen zen. Eta neu, berarekin, batez ere bera hil eta gero. Asko izan dira, batera edo bestera, telegramaz, idatziz, euren dolumina azaldu didatenak, niri eta bere-nire familiari. Horiei, denoi, pertsona, erakunde..., denei, eskerrik onenak, bihotzez.

Roman Garate Goyarzun

